

Bi abentura eta amodio bat

Migel A. Mintegi

LEHEN ZATIA

LUZIA

BIDELAPURRAK

Udaberriko egun lanbrotsu bat zen. Laino itxia zegoen zabaldua mendian. Lainoak eta euri-lanbroak ordu batzuk aurreratua zuten ilunabarra. Artean bostak ez ziren, eta ikuspena eskasa zen oso.

Diligentzia geldi-geldi zihoan aldapa pikoan gora. Bide irristakor zegoen, eta zaldiek ohi baino ahalegin handiagoak egin behar zituzten aldapa gainditzeko. Gidarien oihuek, abereen arnasotsek eta gurpilen kirrinkek hausten zuten mendiko isiltasuna. Bi bihurgune itxi-itxi hartu, aldapa zuzen bat, eta iritsiko ziren Deskargako mendatera.

Bi gizon zihoazen diligentziaren gidari eserlekuan, kapetan bilduta, oihuka eta biraoka, zartailuarekin zaldiak xaxatzen. Diligentzia barruan, sei bidaiari: bost gizon eta neska bat. Isilik zihoazen denak, mendate gaineko bentara iristeko desiratzen.

—Asko falta da zorioneko bentarako? —bidaiari batek hautsi zuen isiltasuna, beste bidelagunei galdetzaile begira.

Negozio-gizon itxura zuen, eta, berak bezala, baita haren aldamenean zihoanak ere. Ilarako hirugarrena apaiz bat zen. Haien aurreko eserlekuan beste hiru lagun zihoazen: bi gizon eta neska gazte bat. Gizonetako bat heldua

zen. Bestea, gaztea. Azken hau erdi lo zihoan, begiak txilota burua leihoaren kontra jarrita.

—Ordu laurden bat —erantzun zion neskaren ondoan zihoan gizonak—. Ordu laurden luze. Uf! Badut bentara iristeko gogoa. Gauza beroren bat hartu, ordu erdiko atsedena, eta, gauerako, Urretxun.

—Eta bidaia nekagarri hau amaitu—apaizak gainertu.

—Berorrek, jauna; guk, guk ez. Guk Tolosaraino jarraitu beharko dugu bihar —esan zuen galdera egin zuenak.

—Orduan, elkarrekin joango gara Beasaineraino —neskarekin zihoanak—. Eta zu, zu nora zoaz? —galdetu zion erdi lo zihoanari.

Begiak ireki zituen. Gizon zailduaren itxura zuen, baina gaztea zen oraindik. Begi argiak zituen, biziak, eta aurpegi beltzaranak bizitasuna areagotzen zien. Itsasoan edo aire zabalean luze ibilitakoen kolorea zuen haren aurpegiak.

—Zuek bezala, ni ere, Beasainera noa —erantzun zion—. Zure alaba? —neskari begira.

—Ez, iloba dut Luzia, anaiaren alaba. Beasainera zozela diozu... Beasainarra zara, apika?

—Bai, jauna, halaxe da: Beasainen jaioa eta bizia naiz.

—Bada, ez zaitut ezagutzen.

—Ez naiz harritzen. Mutiko bat nintzela utzi nuen jaiotetxea bizibidea ateratzera joateko. Eta, bide batez, dena esan behar badut, mundua ezagutzera. Laster izango dira zortzi urte. Olaeta baserrian jaioa naiz.

—Mundua ezagutzera? —hitz egin zuen neskatxak, inbidiaz—. Ni ere joango nintzateke.

—Ume txoriburua! Pentsatzea ere! —osabak, berehala—. Olaetako zarella diozu. Ezagutzen dut zure familia. Zure anaia eta bi arrebak.

—Ni Pedro naiz. Umezurtz gelditu ginenean, Iparraldera joan nintzen ni, Ziburura, han bizi zen osabaren etxera. Hamalau urte nituen. Geroztik ez naiz Beasainera itzuli.

—Eta ezagutu duzu mundua? —galdetu zion neskak.

—Zati bat. Zati txikia: mundua oso handia da dena ezagutzeko.

—Nahikoa da, Luzia: ez zaitetz izan hain jakin-nahia —amaiera jarri zion osabak hizketaldiari.

Neska isildu egin zen. Bera bezala, besteak ere. Olaetako gazteak begiak itxi zituen, eta aurreko jarrerara itzuli. Baina aldi hartan ez zen logaletu: oroitzapenek ez zioten utzi.

Hamabi urte zituen Pedrok osaba ezagutu zuenean. Amaren hiletetara etorri zenean ezagutu zuen. Gizon zaildua zen osaba, etorri handikoa, eta solaskide atsegina. Hamaika kontu eta pasadizo zituen kontatzeko. Pedro, sukaldeko bazter batean eserita, liluratuta egon zitzaion hari entzuten bere bizitzaren gorabeherak eta aditutako eta bizi izandako istorioak. Buruan grabatuta geratu zitzaizkion. Eta, haiekin, urrutiko Kanada, haren handitasuna eta bertakoen ohiturak eta bizimodua. Saiatu zen hango baso eta lautadak irudikatzen, itsaslabar eta ibaiak, hartzak eta baleak. Ez zuen lortu: ezinezkoa zen bertara joan gabe, osabaren hitzetan.

Ordudanik, sarri egiten zuen amets Kanadarekin, baina ametssetako irudiak lausoak izaten ziren, eta areagotu egiten zitzaion zuzenean ezagutzeko gogoia.

Ama hil eta bi urte geroago, beste zoritxar batek ekarri zuen baserrira osaba. Aldi hartan, aitaren heriotzak. Eta, orduan, entzun soilik ez: osabaren bizitzaz eta eginkizunaz interesatu zen Pedro. Eta, jakina, Kanadaz ere bai.

—Supazterrean kontu-kontari, nire bizitzak erakargarria ematen du, Pedro —esan zion osabak—, baina gogorra da. Neke eta oinazeak ez dira gutxi; arriskuak ere batzuetan: askotan ez dakizu hurrengo egunak zer ekarriko dizun. Hala ere, nik ez nuke beste ezergatik aldatuko. Hori ere egia da.

—Osaba, eraman nazazu zurekin, probatzeko besterik ez bada ere —esan zion Pedrok, sutsu, erabakitasunez—. Aita hilda, anaia zaharraren esku geldituko da baserria, eta, nirean geldituta ere, ez dut neure burua lurra lantzen eta abereak gobernatzen ikusten. Ama hil zenetik zuri entzunda amets egin dut atzerriko lurraldeekin, Kanada ezezagunarekin batez ere.

Osaba begira-begira geratu zitzaion. Pentsakor.

—Mutiko ausarta eta argia ematen duzu. Nik ez dut seme-alabarik, eta gauzak oker ateraz gero... Tira, hilabete barru itzuliko naiz: orduantxe hitz egingo dugu. Elkarrekin eta zure anai-arrebekin ere. Proba egiteagatik ez duzu ezer galduko. Baina garbi eduki ezazu ahulek eta beldurtiek ez dutela tokirik mundu horretan.

Hilabete geroago zeharkatu zuen muga osabarekin, eta Ziburura joan zen bizitzera.

Diligentziak bihurgunea hartu zuen. Beste bat, eta bistan edukiko zuten mendatea. Areagotu egin ziren gidarien oihuak, zartailuaren kraskak eta zaldien putzak. Bat-batean, ziplo gelditu zen diligentzia bide erdian. Zer ote? Kanpotik, gidarietak ez ziren beste oihu batzuk entzun zituzten bidaiariak. Elkarri begiratu zioten. Pedro gaztearen begietan susmo txar baten itzala azaldu zen. Urduri mugitu zen jesarlekuan.

Tupustean, bi aldeetako ateak zabaldu ziren. Kanpoaldean lau lagun zeuden, bi alde bakoitzean. Aurpegia estalita zeukaten, eta armatuta zeuden.

Bidelapurrak!

—Tira, denok kanpora! —oihu egin zien batek, ahoskera zakarrez, eskuan zeraman pistolatzarra astinduz mugi zitezten. Gizon kankailu bat zen: lapurren burua, antza.

Ezustean harrapaturik, zur eta lur geratu ziren bidaiariak, zirkinik egin gabe, jesarlekuei erantsita baleude bezala.

—Ez duzue entzun? Gorra al zarete? Mugi zaitetze, arraioa! —pistolari eragin zion berriro, mehatxuz.

Estropezuka atera ziren bidaiariak. Pedro izan ezik. Gaztea polikiago atera zen besteen atzetik. Hankak lurrean jarri aurretik estribuan zutik, ezker-eskuinera begiratu zuen. Gero, jaitsi. Oinak lurrean ipini orduko, lapurren buruak bultza egin zion besteen ondora.

—Mugi zaitetz, ergel alaena!

Neskatxaren ondoan jarri zen. Hortzak estuturik zeuzkan; begiak, erne, eta giharrak, tenk. Begiratu egin zien bidelapurrei. Lau ziren; laurak, armaturik, alproja samar

itxuraz. Baina txantxetan ibiltzeko gogorik gabe. Eta are gutxiago luzamendutan. Bik bidaiariak zaindu bitartean, lapurretari ekin zioten taldeburuak eta besteak.

—Badakizue zer ari zareten egiten? —agiraka egin zien apaizak—. Infernuko suan kiskaliko zarete. Hala ere, oraindik zentzu apur bat baduzue, garaiz zaudete...

—Utzi sermoia igandeko mezatarako, jauna, berorri ez diogu-eta ezer kenduko —eten zion lapurren buruak.

Diligentzia barrukoa harrapatu eta gero, bidariariekin hasi ziren. Lehenbizi negozio gizonen ostu zieten aldean zeramaten baliozkoa. Ondoren, lapurren burua Pedro-rengana hurbildu zen. Patrikan zeramana kendu eta gero, atentzioa eman zion lepotik zintzilika zeramanak. Besoa luzatu zuen, hartzeko asmoz.

Tximista batek joa bezala egin zuen jauzi Pedrok. Besotik heldu zion lapurrari, eta hankaz gora bota zuen, arma erabiltzeko aukerarik eman gabe. Begien itxi-ireki batean lapurraren gainean zegoen, belauna beso gainean jarririk eta eskumuturra bihurrituz pistola aska zezan.

Une hartan, kolpe bat sentitu zuen buruan. Berehala hasi zitzaion begirada lausotzen. Konortea galdu aurretik, ordea, bidelapurraren besoa ikusi zuen. Azken irudia izan zen hura. Gero gau beltza zabaldu zen Pedroren inguruan.

BAHIKETA

Begiak zabaldu zituen Pedrok. Irudiak lauso sortu ziren haren inguruan. Buruan pisu handia zuen, minsorra barruan. Burura eraman zuen eskua. Lotura bat zeukan inguruan, eta loturaren azpian koskor handi samar ba. Ukitu orduko, orratz baten zitzada bezalakoa sentitu zuen. Mina gaindituta, bularrera eraman zuen eskua: kutuna falta zitzaion. Oraingo honetan bihotzean sentitu zuen mina. Amorratuta, zutitzearena egin zuen. Zitzada mingarri batek ahalegina bertan behera uztera behartu zuen.

—Ez zaitetz mug; lasai egon; itxaron oraindik —esan zion norbaitek.

Zapi hotz bat jarri zioten kopetan. Mina arintzen sentitu zuen. Begiak itxi zituen. Erdi lo egon zen pixka batean. Ireki zituenean, irudiak gardenago sortu ziren inguruan. Ohe batean zegoen; bere ondoan, ezezagun bat, —medikua, antza—, eta, haren atzean, diligentzian zihoan apaiza.

—Non nago? —galdetu zuen.

—Urretxuko ostatuan. Onik zaude. Txiripaz, baina onik. Kaskezur gogorra daukazu, gazte. Beste edonorena txikitu egingo zuen trabukoarekin eman zizuten kolpeak —esan zion apaizak.

Deskargako eraso etorri zitzaion gogora. Bidelapurra besoa luzatzen gogoratu zuen, kutuna kentzeko asmoz